



# Besoitagoena (-a)

etxebizitza

Aldacrak: Gonengoa

Ahozkoa: Gónengue / Besóitte gónengue



43° 11' 19"

2° 34' 31"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Besoita etxe-multzoan aurkitzen den baserri honen gaineko lehen aipamena 1825eko polizia-errolan aurkitzen dugu, *Besoitagoena* (1825, PE/1825), hain zuzen ere. Dokumentazioan oro har aldaketa gutxi izan ditu, *Besoitagoena* (1849) BAH, A210/37. or.) eta *Besoita gonengua* (1905, BUA, 40. or.) izanik formarik erabilienak. Arestian aipatu izan dugun moduan, 1859an *Besóitas* (BUA, Nmcr) agertzen da erregistratuta beste baserriekin batera. Ahozkoari erreparatuta, *Gónengue* edo *Besóitte gónengue* formak erabiltzen dira gehien.

Orainsu berriztatu duten baserri etxea da, aldi desberdinetako obrak antzematen zaizkiona, bai silarrietan, baita XVI. mendekoa izan daitekeen leiho baten hegí molduratuari, “AÑO DE 1779” dioen inskripzioa duelako edo, orokorrean, XVII. mendean zabaldu zen etxeen tankerakoa delako. Hau da, hiru gorputz eta erdikoan, atartea, zurezko dintelduna, harkantoiak gainean jarria. Alboetakoak irtenago daude, harlangaitzezko hormekin eta harlandua, kantaletan eta leiho ertzetan. Gaietakoak egurrezko egitura du eta hormak adreiluzkoak ditu. Ganbaran, sarritan ikusten diren txori-tokiak.

toponimia

Berrizen badira -ita amaiera duten leku izen asko eta Etxeita kasuan hasieran etxe egon daitekeela pentsa daitekeen arren beste batzuetan hasierako osagaia pertsona izen bat izan litekeela pentsa genezake. Hori balitz kasu honetan Beso edo antzeko zerbait izan genezake, baina datu gehiago beharko genuke zerbait ganoraz ondorioztatzeko. Kasu honetan goiko aldekoa dela esaten digu, baina interesgarria da hori esateko euskaldunek ditugun eta eduki ditugun bideak, esaterako Besoita gonengua.